

# Galtxetabururen grabaketak berriz argitaratuak laster

 [irulegikoirratia.eus/tokiko-gaiak/galtxetabururen-grabaketak-berriz-argitaratuak-laster](http://irulegikoirratia.eus/tokiko-gaiak/galtxetabururen-grabaketak-berriz-argitaratuak-laster)

## IrulegikoIrratia

Zure irratia - 91.8 fm



~ 10/11/2022

Beñat Irigoyen "Galtxetaburu" (1934 Monterrey Park, 1990 Gamarte) soinuariaren grabaketak berriz argitaratuak izanen dira. Irulegiko Irratiaren eskutik 1988an grabatu zituen doinuak kazeta batean argitaratu ziren eta berehala agortu ere. AIKO Taldeak Galtxetaburuen grabaketak berriz argitaratuko ditu. Diskoa aurkezteko, urriaren 30ean Galtxetaburu eguna ospatuko da Uharte Garazin. Musikariaren omenez musikaren eta dantzaren inguruan elkartzeko egun eder bat pasatzeko parada.

Galtxetaburu eguneko egitaraua:

11:00 Jauziak lekuko musikariek

12:00 Bi hitz jauzietaz eta musikarietaz atzo eta egun

12:30 Zintzur bustitzea eta dantzak Aikorekin

13:45 Apairua. Menua: arraina, ahatekia, gasna, bixkotxa, arnoa, ura, ogia

16:00 Jauziak eta dantzak Aikorekin

**Irulegiko Irratia** Jai-Alai etorbidea 15, 64220 DONIBANE GARAZI - Tel: 05 59 37 14 11 -  
Deseinu & garapena Studiowaaz: [Studiowaaz](http://Studiowaaz)

- —
- —
- —
- —